

Udalaren lehenengo Plenoa: pastelaren banaketa

Urteetan ikusi ez dena ikusi da Udal Hauteskundeen osteko **lehen Plenoan**: alderdi guztiak (EAE-ANV izan ezik) **bat etorri dira** puntu garrantzitsu batzuetan. Arrazoia erraza da: lehen Pleno horretan zinegotziek eta talde politikoek **jaso beharreko diruaz mintzatu** dira. Eta hartu duten erabakiak, denak utzi ditu **pozik**. Ez da gutxiagorako:

- Zinegotzi osoki liberatuen kopurua **bikoiztu** egingo da
- Konfidantzazko aholkularien kopurua (hots, **“hatzamarrez” izendatuak**) ere bikoiztu egingo da

Taldea eta urtea	Zinegotziak (ANVri bereak ostu ondoren)	Zinegotzi osoki liberatuak	Zinegotzi erdizka liberatuak	Aholkulariak
EAJ-PNV 2007	10	9	1	4
EAJ-EA 2003	11	7	4	2
PP 2007	10	3	1	1
PP 2003	9	0	0	0
PSE-EE 2007	4	2	0	1
PSE-EE 2003	3	0	0	0
Ezker Batua¹ 2007	1	1	0	0
Ezker Batua 2003	2	1	1	1
Orotara 2007	25	15	2	6
Orotara 2003	25	8	4	3
Karguari dagokion urteko soldata	-	Alkatea: 81.109 € Zinegot: 66.663 €	26.665 €	53.500 €

Orotara, zinegotzien eta aholkularien soldatak **urtero 230 milioi pezeta aterako zaizkigu getxotarrei** hemendik aurrera; orain arte baino **% 87 gehiago**.

Honez gain, **urtero, beste 27 milioi pezeta** banatuko dituzte EAJ-PNV, PP, PSE-EE eta EB taldeen artean,

¹ Hauteskundeetara Aralarrekin batera aurkeztu bazen ere, azkenik Ezker Batua da biok lortu zuten zinegotziarekin geratu dena.

subentzio gisa.

Eta horrekin batera, administrazio langile bana kontratatu ahal izango du talde horietako bakoitzak.

Hau guztiau justifikatzeko, "oposizioaren lana erraztu nahi dela" esan du Alkateak. Argudioa bertan behera geratzen da ordea, EAE-ANVrekin egiten dutena ikusirik: jaso genituen 3.245 botoak zakarrontzira bota, eta **dagozkigun zinegotzi biak EAJ-PNV eta PPren artean banatu dituzte**, getxotarren % 8 ordezkari-tza politikorik gabe utzita.

Zinegotzien lapurretarik ez!



Getxotar guztien botoak errespetatu!